LEABURU-TXARAMAKO UDALA
GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Idatzi honen bidez Leaburu-Txaramako udalak, arroparen gaikako bilketa zerbitzuan aldaketak egon direla jakinarazi nahi dizue.
Orain arte zeuden ontzi berdeak Emaus Gipuzkoaren ontzi txuriengatik ordezkatuak izan dira, hobekuntza bezela edukiontzi hau berrerabilpenaren edukiontzia izando da,eta horrela arropa eta ehunkiez gain egoera onean dauden hainbat objetu jaso ahal izando dira, hala nola:

- Liburuak
- Jostailu txikiak
- tresna elektriko txikiak
- oinetakoak
- osagaiak

Ontzira botatzerakoan mesedez ez nahastu arropa gainerako gauzekin, poltsa ezberdinetan banatu sartu aurretik.

Ontzi hauek erabiliaz Emaus laguntzen egongo zara, elkarte honek hainbat arlotan lan egiten du, ala nola, Gizarteratzea, economía social eta solidarioa edo eta gizartzea eraldatzeko hezkuntza.

Baliabiderik ez duten pertsonei gizartean duintasunez parte hartzeko behar dituzten laguntzak eskaintzen dizkie: etxea, gertutasuna, ahalduntzea… galdutako irribarrea berreskura dezaten.



Urrope Plaza, 2 • 20491 LEABURU-TXARAMA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 67 59 31 • Faxa: 943 67 37 29 • leaburu@udal.gipuzkoa.net

**LEABURU-TXARAMAKO UDALA**
GIPUZKOA

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Urte berriarekin batera aurreko urtean hasi eta bukatu ez genuen hondakinen inguruko galdeketa eta kezken argipenarekin jarraitzeko asmoa daukagula jakinarazi nahi dizuegu. Horretarako udal langile bat pasako da zuen etxeetatik. Hitzorduak aurrez telefonotik adosten saiatuko gara.

Helburua, zuen etxeetako hondakinak sailkatzerako garaian sortu daitezkeen zalantzak argitu edo izan ditzazkezuen proposamen edo kexak jasotzea da, bide batez zabor bilketa sistemaren inguruko galdeketa labur bat egingo dizuegu, ondoren jasotako erantzunak lagungarri izando zaizkigu Leaburu-Txaraman daukagun sistema hobetu eta Zero Zabor norabidean sakontzeko.

Harremanetarako deitu udaletxera edo idatzi **leaburu-txarama.zaborkudeaketa@udal.gipuzkoa.net** helbidera

Besterik gabe, mila esker parte hartzeagatik.

Gogoratu, denon ardura da hondakinak murriztea beraz birziklatu eta bererabili dezagun.




Urrope Plaza, 2 • 20491 LEABURU-TXARAMA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 67 59 31 • Faxa: 943 67 37 29 • leaburu@udal.gipuzkoa.net